

Aisialdia, jarduera soziokulturala eta inklusio soziala: Abusuko kasua

Naiara Berasategi*, Ainara Arribas*, Israel Alonso* eta Hector Alonso**

* Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

** Facultat d'Educació Social i Treball Social Peré Tarrés. Universitat Ramon Llull

Ikerketa-lan honen helburu nagusia Bilboko Abusu auzoko biztanleen jarduera soziokulturaletan ematen den parte-hartzea nolakoa den aztertzea izan da, parte-hartze horrek inklusio sozialean duen eragina aztertzeko. Ikerketa honen metodologia deskripziozkoa eta korrelaziozkoa izan da eta horretarako galdetegia erabili da. Ikerketan 18 urtetik gorako 94 pertsonak parte hartu dute, eta horietatik % 45,7k baieztatu dute komunitatea hobetzeko parte hartzen dutela. Komunitatea hobetzeko parte hartzen dutenek, parte hartzen ez dutenen aldean, inklusio sozialaren inguruko hainbat baieztapenetan ikuspegi positiboagoa adierazi dute.

GAKO-HITZAK: Aisialdia · Inklusioa · Giza eta kultur animazioa · Parte-hartzea · Komunitatea.

Leisure, socio-cultural activities and social inclusion: The case of Abusu

This is the main purpose of this investigation has been to analyse how the participation of the neighbourhood of La Peña is in sociocultural activities, to observe how that participation influences on social inclusion. The methodology of this research has been descriptive and correlative and for that, a questionnaire has been used. 94 people have participated on the questionnaire, all over 18 years old, and the 45.7% of them said they are involved in the community improvement. Those who are involved in the community improvement, comparing to those who aren't, have demonstrated a more positive perspective on some of the statements on social inclusion.

KEY WORDS: Leisure · Inclusion · Investigation · Participation · Community.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.103.2017.2>

Jasotze data: 2017-103-03

Onartze data: 2017-07-15

Sarrera

Lan hau Bartzelonako Ramon Llull Unibertsitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean Hezkuntza Ministerioko I+G+B deialdi baten barruan aurrera eramaten ari den «Aisialdia, jarduera soziokulturala eta kohesio soziala» izeneko proiektuaren barnean kokatzen da. Ikerketa horren helburu nagusia da aztertzea nola eragiten duten aisialdi hezitzaileak eta praktika soziokulturalak inguruneko kohesio sozialean. Lan honetan, zehazki, inklusio sozialaren eta praktika soziokulturalen arteko harremana nolakoa den aztertu da.

1. Marko teorikoa

1.1. Aisialdi hezitzailea eta animazio soziokulturala

Aisialdiaren definiziorik tradizionalena Joffre Dumazedier (1968: 20) soziologo frantziarrak eman zuen, eta hauxe dio: Aisia betebeharrak batzuen multzoa da, gizabanakoa borondatez egiten duena; bere behar profesionaletatik, familiarretatik eta sozialetatik askatu ondoren, atsedena hartzeko, ondo pasatzeko, bere informazioa edo bere formazioa osatzeko, edo boluntarioki bere komunitatearen bizitza sozialean parte hartzeko. Aisialdiaren barnean, aisialdi hezitzailea (Sindic de Greuges, 2014), aisialdira bideratuta dagoen ekintza hezitzailea da. Hala ere, aisialdi hezitzailea ez da bakarrik aisialdi hezitzaile bideratzen, baita prestaturik eta gidaturik dauden jarduera multzo batera ere, zeinak umeei bideratuta dauden helburu ludikoekin eta hezitzaileekin.

Aisialdi hezitzailea azken denboraldian garrantzi gehiago hartzen joan da, bai haurtzarora bai botere publikoan ere. Azken urteekin konparatuz, orain aisialdi hezitzailean parte hartzen duten ume gehiago daude, besteak beste, eskaintza hau garatzen duten agente sozial gehiago baitago. Era berean, administrazioetik ere gero eta gehiago lantzen den gaia da. Aisialdi mota hau umeen eta gazteen parte-hartzea sustatzeko proposatzen da (Sindic de Greuges, 2014).

Aisialdia kontzeptuarekin lotuta animazio soziokulturala dago. Ander-Egg-en ustez (1988), animazio soziokulturala parte-hartzean oinarritutako gizarte-teknologia da; haren xedea bizitzaren ongizate-esparru ezberdinetan eragitea da, jendearen parte-hartzea bultzatuz, beren testuinguru soziokulturalaren garapena bultzatzeko gai izan daitezen. Bestalde, Barrado-k (1982), azaltzen du animazio soziokulturala gizartearen jokaera kritikoa, askea eta eraldatzailea dela.

Arestian azaldutako bi termino horiek erlazio oso zuzena dute gizarte osoarekin, oro har, elkarrekin lan egiten dutelako. Hala ere, termino bi horien desberdintasun nabariena aisialdian egiten diren edo egiten ez diren gauzetan datza. Aisialdi hezitzailea, izenak dioen bezala, gehienbat aisialdian zentratzen den terminoa da. Animazio soziokulturala, ordea, gizartearen parte-hartzea bultzatzeko nahian kokatzen da.

Hala ere, praktika soziokulturalak eta aisialdiko praktikak proiektu hezitzaile eta kultural askorekin erlazionaturik daude. Era berean, hobekuntzak bilatzen

dituzten zerbitzuekin, prozesuekin edota dimentsio pertsonalaren hazkundearekin erlazio naturik daude. Estupinyá-k (2006) dio aisialdiak gaur egun gure bizitzaren parte oso garrantzitsu bat hartzen duela. Gure gizarteak inposatzen digun erritmo bortitzak eta ohiturek behartzen gaituzte aterpea bilatzera ordeko jarduera batzuetan; deskonektatzen eta bizi dugun estresetik askatzen laguntzen digutenak.

1.2. Aisialdi hezitzailea eta inklusio soziala

Aisialdia eta ekintza soziokulturala inklusio sozialaren elementu gisa ulertzea garrantzitsua da. Hori dela-eta, esaten da, aisialdi inklusiboaren aitzindari izateak zera dakarrela: desberdintasuna balio gisa onartzea. Komunitate inklusibo bat biztanleria guztiaren beharrei erantzuteko gai da: ekipamenduetan, azpiegituretan, zerbitzuetan eta programetan (Madariaga, 2004). Inklusioa, pertsona guztiak zerbitzu eta programa guztietan parte hartzea baimentzen duen politika eta prozesua da. Inklusioak errazten duen aldaketa-eredua prozesu berritzaile batek osatzen du, erakunde baten ikuspegitik gizartearen berreraikitze bat aldarrikatu nahi duelako. Ikuspegi horretatik, lan-proposamenak bilatzen dira, zeinek komunitate bakoitza osatzen duten pertsonen heterogeneotasunari erantzuna ematen dioten. Inklusioa etengabeko prozesu multzoan oinarritzen da. Haren helburua da aniztasun funtzionala duten pertsonak osotasunean eta era aktibo batean parte hartzea, komunitateari eskaintzen zaizkien aisialdirako eskaintzetan.

Eskaintza horietan, beharrezkoa da pertsonen parte-hartzea sustatzea. Pertsonen inplikaziorik gabe, esaten da ez dela posible izango etengabeko hobekuntza eta pertsona hartzaileekin asebetetzea. Hala, aisialdiko zerbitzuetan elkartutako pertsonak hein handi batean beste solaskide desberdin batzuekin komunikatzen aritzen dira, informazioa trukatzuz eta deseginez edota erlazio egiturak deseginez eta berreraikiz. Barneratzaileak edo baztertzaitzaileak, parte-hartzaileak edo inposatzaileak diren egiturak izaten dira (Fantova, 2004). Horregatik eta erakunde baztertzaitzaileak ez sortzeko, beharrezkoa da guztion parte-hartzea bultzatzea, desberdintasunak onartzuz eta sustatuz.

Inklusioa gizarteari zuzendutako prozesu bat da. Bizitza eta gizartea ulertzeko era desberdina da, filosofia eta balio gisa ikus daiteke, non pertsona guztien onarpenean oinarritzen den. Horrek eskatzen du pertsona guztiak beren berezitasunengatik ezagutuak, baloratuak eta gizartean parte hartzeko aukerak izatea, bakoitzaren ahalmenak errespetatuz (Morata eta beste, 2015).

Ainscow-ek (2004) inklusio hitzaren esanahiaren inguruan zenbait ikerketa eta lan aztertu ondoren, lau elementu garrantzitsu aurkitu zituen termino hori ulertzeko:

1. Inklusioa, lehen esan bezala, prozesu bat da, ez delako soilik helburuen finkatze eta lorpenetan zentratzen; aniztasunari nola erantzun ahal zaion moduen bilatze bukaezina da. Desberdintasunarekin bizitzen eta desberdintasunetik ikasten ikastea da.
2. Inklusioa hesien identifikazioan eta ezabapenetan zentratzen da.

3. Inklusioa asistentzia, parte-hartzea eta etekina da.
4. Inklusioak marginatuak edo baztertuak izan daitezkeen taldeetan atentzio berezia jartzen du.

Inklusio-prozesuak oinarritzko printzipioen erlazioa eta defendatzen dituen balioak azaltzen ditu, pertsona guztiak komunitatearen parte izan daitezzen. Arnaiz-ek (1997), inklusioa, bizikidetzeta eta ikasketa talde batean, guztientzako onuragarria dela onartzen du.

Pertsona baten inklusioa eman dadin beharrezkoa da haren duintasunaren eta errespetuaren eskubidea onartzea, pertsona hori den moduan onartzea, hau da, haren abileziak, jokabideak, sentimenduak eta jarrerak ere onartzea (Ainscow, 2004). Alde batetik, Compton, Pegg eta Robb-ek (2003) diote inklusio betea gizarte-dinamika batez osatua dagoela, zeina aldaketa-mailak gauzatzen doan, bai bere testuinguruan, baita parte-hartzaileetan ere. Hori guztiak elkarren arteko eragina izan behar du eta ez du aldagai desberdinek mugaturik egon behar, hau da, ohiturek, legeek, tolerantzia indibidualak eta taldearenak, gizarte-aukerek, komunikazioak eta pertzepzioak ez dute mugatu behar. Bestetik, aniztasun funtzionala duten eta ez duten pertsonen artean gauzatzen diren interakzioek pertsona batzuen interes errealtaren, helburu orokor batzuen eta berdintasunaren lehentasunaren aurretik joan behar dute, bukatzean ebaluatzeko gai izateko parte hartu dutenen artean. Orobat, inklusioak erlazioa dauka norberaren gauzen zentzuarekin, laguntasunarekin eta komunikazioa aurreiritzirik eta epaiketarik gabe sortzen den espazioekin. Azkenik, pertsona guztiek baloratuak izan behar dute bakoitzaren ahaleginen eta hartutako erabakien arabera, beren gizaki-baldintza kontuan hartu gabe. Inklusio osoak zentzua dauka esperientzia eragiten den testuingurua naturala denean.

Inklusioa lortzeko beharrezkoa den balioa onarpenaren diferentzia da (Devine eta Dattillo, 2000), eta horrek, besteak beste, bakoitzak behar eta interes desberdinak dituela esan nahi du, desberdintasun horien garapenei aukera emanik. Hori oraingo gizarteko erronkarik garrantzitsuena da, gizaki-aniztasuna ezagutzea, ulertzea eta baloratzea. Onarpenaren diferentziak «zu eta ni»aren mugaketa dakar. Horrela, pertsonen arteko berdintasun-erlazioak gauzatuko dira talde bakoitzak edo pertsona bakoitzak onartzen dituztenean besteek beste mota bateko behar eta interesak dituztela. Horregatik, desberdintasunaren onarpena bestea eta bere behar eta baldintza tolerantzia da. Besteari bere tokia eta bere desberdintasunean garatzeko aukera eman behar zaio.

Inklusioa giza eskubideetatik ikusita, pertsona guztiak berdinak garelako eta errespetatuak izan behar dugulako ideiatik ateratzen den filosofia da. Praktikan, aisialdi inklusibo batean oinarrituta dagoen proiektu batek honako dimentsio hauek jasotzen ditu (Morata eta beste, 2015):

- Gizartearen ikuspegi demokratikoa erreferente moduan hartzen du.
- Komunitateko partaide guztiak barneratzen ditu.

- Jokabideak, balioak eta sinesteak inplikatzten dituen filosofia instituzionala da.
- Komunitatearen, laguntasunaren eta talde-lanaren zentzua garatzen du.
- Aukeren eta eskarmentuen kalitatea eta gailentasuna hobetzen du.
- Pertsona ororen ezaugarriak, beharrak eta interesak kontuan hartzen dira.
- Testuinguru naturaletan eta talde heterogeneotan laguntza eskaintzen da.
- Perspektiba instituzional batetik lan egiten da.
- Zailtasunak sistema hobetzeko aukera bezala hartzen dira.
- Entitateak edota ekipamendua erabiltzaileei erantzuna emateko eraldatzen da.
- Atentzioa pertsona guztiei erantzuteko eskaini zaizkien baliabideetan zentratzen da.

Aisialdi inklusiboa hurrengo elementuek definitzen dute (Morata eta beste, 2015): a) giza eskubidetzat hartzen da, b) pertsona guztiei zuzenduta dago, c) modelo soziologiko batean oinarritzen da, d) inklusio oso eta globalaren alde egiten da, hau da, edozein motatako pertsona sar daiteke, e) erreforma estruktural bat inplikatzten du, f) komunitatea eta giro soziala erreferentziatzat hartzen da, g) pertsona guztientzako eskaintza bat planteatzen du, eta h) konpromiso bat eskatzen du.

MacNeil eta Anderson-en arabera (1999), aisialdi inklusiboaren aukerak gizaki guztientzako oinarritzko eskubide zibilatzat hartu beharko liriteke; kontuan hartu gabe bakoitzaren gaitasunak, denek aukera dutelako aisialdi-esperientzia bat bizitzeko. Aisialdi inklusiborako aukerak eta zerbitzuak izatea ezinbestekoa da, baina askotan ez dira bermatu eta egun ere sarri ez dira bermatzen.

Hainbat dira behar eta nahi horietatik abiatuta aisialdi inklusiboaren aldeko apustua aldarrikatzen ari diren erakundeak esaterako, Ezgaitasunaren Foro Europarra. Erakunde hori, Europar Batasunean aniztasun funtzionala duten pertsona guztien interesak irudikatzen dituen gobernu kanpoko erakundea (GKE) da. Erakunde horren helbururik nabarmena aisialdi inklusiboan oinarrituta, honako hau da: aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusio soziala bultzatzea. Inklusio sozialak ez du bakarrik eskatzen inklusioa lanaren arloan, baizik eta bizitzako gainontzeko arloetan ere, aisialdia kasu.


Horregatik, lehen esan bezala, jakin beharra daukagu inklusioa pertsona guztiek zerbitzuetan eta programetan parte hartzea baimentzen duen prozesua dela. Horretarako, ezinbestekoa da, gizarte inklusibogo baten bidean, aisialdi inklusiboa bideratzea.

Testuinguru hau oinarri izanik, lan honen helburu nagusia Bilboko Abusu auzoko errealitateetik abiatuz, bertako auzokideen praktika soziokulturalak aztertzea izan da eta horrek inklusio sozialarekiko duten ikuspegian eraginik ote duen frogatzea.

2. Metodologia

2.1. Lagina

Abusu Arrigorriaga eta Bilbon kokatutako auzoa da, Bilboko Ibaiondo distritoan kokatzen da. Abusu auzoak 7.620 biztanle ditu. Ikerketa honetan Abusu auzoko 94 pertsonak parte hartu dute (n=94). Horietako, % 65,5 (n=61) emakumeak dira eta % 34,4 (n=32) gizonak. Adinari dagokionez, 18-35 urte bitartean % 21,3 (n=20) kokatzen dira, 36tik 65era % 55,3 (n=52) eta 66tik gora % 23,4 (n=22). Aztertutako biztanleriaren gehiengoak, % 79,3k, 10 urte baino gehiago darama auzoan bizitzen (n=73). Era berean, gutxiengoa da euren etxean bakarrik bizi direnak % 15,2 (n=14) eta bakarrik bizi ez direnak % 83,7 (n=77) dira.



1. grafikoa. Biztanleria adin-tartearen arabera.

2.2. Erabilitako galde-sorta

Erabilitako galdesorta ad-hoc sortutakoa izan da, «Aisialdia, jarduera soziokulturala eta kohesio soziala» izeneko ikerketaren barnean. Inkesta horretan hainbat dimentsio neurtzen dira, horien artean: kohesio soziala, inklusioa, parte-hartzea, sare soziala eta kapital soziala. Ikerlan honetarako, bakarrik kategoria batzuetan oinarritu gara, hain zuzen, ondorengo elementuei erreparatuz: aisialdi hezitzailea eta inklusio soziala.

2.3. Diseinua eta prozedura


Datuen analisirako SPSS 20.0 programa erabili da. Horretarako metodologia deskriptibo eta korrelaziozkoa erabili da. Galde-sorta Abusu auzoko bizilagunei pasa zitzaien. Oro har, inkesta kaletik zebiltzan bizilagunei pasa zitzaien. Hala ere, zenbait leku konkretutan ere pasa ziren inkestak, hala nola eskola publikoan, anbulatorioan, elizan, nagusien egoitzan, tabernetan, zentro zibikoan eta dendetan.

3. Emaitzak

Abusuko parte-hartze soziokulturalari dagokionez, aztertutako lagineko pertsonen galdetu genien ia azkeneko 3 hilabeteetan parte hartu al zuten elkarte soziokulturaletan. Parte-hartze horri dagozkion datuak jasotzen dira 1. taulan eta 2. grafikoa.

1. taula. Parte-hartzea elkarte soziokulturaletan azken 3 hilabeteetan.

Elkarte soziokulturalak	Erantzuna	Lagina (N)	Portzentajea %
Udako kanpamentuak	Bai	2	2,7
	Ez	73	97,3
Erakunde erlijiosoak	Bai	18	24,3
	Ez	56	75,7
Ludoteka	Bai	15	20,3
	Ez	59	79,7
Udalekuak	Bai	3	4,1
	Ez	71	95,9
Auzokideen elkarteak	Bai	14	18,9
	Ez	60	81,1
Mugimendu sozialak	Bai	9	12,2
	Ez	65	87,8
Elkarte kulturalak	Bai	20	27,0
	Ez	54	73,0
Eskaut taldeak	Bai	1	1,4
	Ez	73	98,6
Kirol-elkarteak	Bai	17	23,0
	Ez	57	77,0
Aisialdi-taldea	Bai	12	16,2
	Ez	62	83,8
Beste batzuk	Bai	19	25,7
	Ez	55	74,3




2. grafikoa. Elkarte soziokulturalak gaur egun.

1. taulan eta 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, oro har gehienek elkarte kulturaletan (% 27) eta zerrendan agertzen ez diren beste elkarte mota batzuetan (% 25,7) parte hartzen dute; ondoren, erakunde erlijiosoetan (% 24,3), kirol-elkarteetan (% 23) eta ludoteketan (% 20,3). Bestalde, gutxien parte hartu duten erakunde soziokulturalak eskaut taldeak (% 1,4), udako kanpamentuak (% 2,7) eta udalekuak (% 4,1) izan dira. Tarteko portzentajeetan kokatu dira mugimendu sozialak (% 12,2), aisialdi-taldeak (% 16,2) eta auzokideen elkarteak (% 18,9).

Iraganari dagokionez, galdetu zitzaien ia noizbait parte hartu duten aisialdi elkarte soziokultural batean (2. taula eta 3. grafikoa).

2. taula. Parte-hartzea elkarte soziokulturaletan iraganean.

Elkarte soziokulturalak	Erantzuna	Lagina (N)	Portzentajea %
Udako kanpamentuak	Bai	16	22,5
	Ez	55	77,5
Erakunde erlijiosoak	Bai	27	38,6
	Ez	43	61,4
Ludoteka	Bai	15	21,4
	Ez	55	78,6
Udalekuak	Bai	21	30,0
	Ez	49	70,0
Auzokideen elkarteak	Bai	10	14,3
	Ez	60	85,7
Mugimendu sozialak	Bai	7	10,0
	Ez	63	90,0
Elkarte kulturalak	Bai	16	22,9
	Ez	54	77,1
Eskaut taldeak	Bai	3	4,3
	Ez	67	95,7
Kirol-elkarteak	Bai	19	27,1
	Ez	51	72,9
Aisialdi-taldea	Bai	14	20,0
	Ez	56	80,0
Beste batzuk	Bai	8	11,4
	Ez	62	88,6



3. grafikoa. Elkarte soziokulturalak iraganean.

2. taulan eta 3. grafikoa ikus daitekeen bezala, gehiengoak erakunde erlijiosoetan (% 38,6) parte hartu zuen, ondoren udalekueetan (% 30) eta kirol-elkarteetan (% 27,1). Bestalde, gutxien parte hartu zuten erakunde soziokulturalak eskaut taldeak (% 4,3), mugimendu sozialak (% 10), zerrendan agertzen ez diren beste mota bateko elkarteak (% 11,4) eta auzokideen elkarteak (% 14,3) izan ziren. Tarteko portzentajeen artean, aisialdi-elkarteak (% 20), ludotekak (% 21,4), udako kanpamentuak (% 22,5) eta elkarte kulturalak (% 22,9) daude.

Elkarte horietan izan duten parte-hartze motari dagokionez (3. taula), ikus daiteke gehiengoak parte-hartzaile moduan parte hartu duela % 79,69k (n=51), ondoren monitorea moduan, % 17,19 (n=11) eta batek baino ez zuzendari moduan, % 1,56k (n=1).

3. taula. Parte-hartze mota elkarteetan.

Parte-hartze mota	Lagina (N)	Portzentajea %
Parte-hartzaile	51	79,69
Monitorea	11	17,19
Zuzendari	1	1,56
Ez daki / Ez du erantzuten	1	1,56

Aisialdia zein espaziotan aurrera eramaten duten ikus daiteke 4. taulan.

4. taula. Espazioak aisialdia pasatzeko.

Espazioak aisialdia pasatzeko	Lagina (N)	Portzentajea %
Kalean (festa, merkatua, paseoak...)	30	32,3
Barruan (eskola, polikiroldegia, zinema, antzerkia...)	34	36,6
Ingurune naturala (irteerak, parkea, running...)	22	23,7
Zentro komertziala (erosketak, jatetxeak...)	4	4,3
Beste batzuk	3	3,2

4. taulan ikus daitekeen bezala, gehiengoak barrutiko espazioetan pasatzen du aisialdia, hau da, % 36,6k. Aisialdia kalean pasatzen dutenak % 32,3 dira eta ingurune naturaletan ematen dutenak denbora, % 23,7 dira. Eta azkenik, gutxiengoa dira euren denbora zentro komertzialetan (% 4,3) eta beste espazio batzuetan ematen dutenak (% 3,2).

Aisialdia zeinekin ematen duten galderari erantzunez, ikus daiteke gehiengoak familian pasatzen duela denbora, % 63,8k (n=60), % 24,5ek lagunekin pasatzen du denbora (n=23) eta gutxienekoa da bakarrik egoten dena, % 10,6 (n=10) (5. taula).

5. taula. Aisialdia norekin pasa.

Aisialdia norekin pasa	Lagina (N)	Portzentajea %
Familia	60	63,8
Lagunak	23	24,5
Bakarrik	10	10,6
Ez daki / Ez du erantzuten	1	1,1

Era berean, galdetu zitzaien ia komunitatean parte hartu al duten berau hobetzeko. Galdera horri erantzunez, ikusten dugu % 45,7k parte hartu duela komunitatea hobetzeko jardueraren batean (n=42) eta % 54,3k ez duela parte hartu (n=50) (6. taula).

6. taula. Parte-hartzea boluntario moduan.

Parte-hartzea boluntario moduan	Lagina (N)	Portzentajea %
Bai	42	45,7
Ez	50	54,3

Inklusio sozialaz duten iritzian, komunitatean boluntario moduan parte hartzen dutenen eta ez dutenen artean desberdintasunik ote dagoen ikusteko, U de Mann-Whitney proba erabili da (7. taula).

7. taulan ikus daitekeenez, desberdintasunak adierazgarriak dira bakarrik bi baieztapenetan, hala nola «talde sozial batean ez dudala parte hartzen uste dut» eta «elkarte batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke jende guztia sartzeara». Lehenengoko kasuan komunitatea hobetzeko parte hartzen dutenen batez bestekoa baxuagoa izan da (M=2,65) parte hartzen ez dutenekin alderatuta (M=3,30). Hau da, komunitatea hobetzeko parte hartzen dutenek uste dute maila altuagoan talde sozial batean parte hartzen dutela. Desberdintasunak ere adierazgarriak dira «elkarte batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke jende guztiak sartzeko aukera izatea»; kasu horretan ere komunitatea hobetzeko parte hartzen dutenen batez bestekoa altuagoa izan da (M=4,41), parte hartzen ez dutenekin alderatuta (M=4,04). Bestalde, nahiz eta beste kasuetan desberdintasunak ez diren adierazgarriak, baieztapen guztien batez bestekoak altuagoak izan dira komunitatean parte hartzen dutenentzenak parte hartzen ez dutenekin alderatuz. Item

horiek neurtzen zituzten inklusioaren ikuspegiaren hainbat ideia, hala nola pertsona guztiak eskubide berberak eduki behar dituztela, jendea integratzea, ez baztertzea bakoitzaren izaerarengatik, kultura desberdinak onartzea... Kasu horietan ikusten da komunitatean parte hartzen dutenen ikuspegia zertxobait positiboagoa dela parte hartzen ez dutenekin alderatuz.

7. taula. Komunitatea hobetzeko parte-hartzea eta inklusio soziala.

Dimentsioak	Komunitatea hobetzeko: parte-hartzea Bai		Komunitatea hobetzeko: parte-hartzea Ez		Sig.
	N	M	N	M	
1. Auzoko jendeak elkarri lagundu behar dio.	41	4,48	48	4,33	0,698
2. Talde sozial batean ez dudala parte hartzen uste dut.	41	2,26	49	3,30	0,022
3. Elkarre batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke jende guztiak sartzeko aukera izatea.	41	4,41	48	4,04	0,059
4. Elkarre batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke bakoitzaren kondizioagatik ez baztertzea (etnia, sexua, ezgaitasunaren bat edukitzea, erlijioa, maila sozioekonomikoa...).	41	4,43	48	4,27	0,321
5. Elkarre batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke elkarre pertsona bakoitzari egokitzea eta ez aldrebes.	40	4,35	48	4,22	0,607
6. Elkarre batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke beste kulturetako pertsonak ezagutzea.	41	4,26	48	4,27	0,903
7. Elkarre batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke pertsonak laguntzea eta integratzea gizartean.	41	4,39	48	4,37	0,719

*<.05. 1-5 Likert eskala (1=Guztiz desados eta 5=Guztiz ados)

4. Ondorioak eta aurrera begirako proposamenak

Lehenik, ikusi ahal izan dugu aurrera eramandako ikerketa-lanean, elkarte soziokulturalei dagokionez, aztertutako pertsonen gehiengoak elkarte kulturaletan parte hartzen duela. Iraganari dagokionez, ordea, aztertutako pertsonak erakunde erlijiosoetan parte hartu zuten gehienbat. Parte-hartze motari dagokionez, antzeman daiteke biztanleriak jardueraren batean parte hartu duen bakoitzean, haien rola parte-hartzaile moduan izan dela, eta gutxiago izan dira, ordea, monitore edo zuzendari moduan parte hartu dutenak. Aisialdiko jarduerak jorratzeko espaziorik nabarmenenak barruko espazioak izan dira parte-hartzaileentzat, hala nola ikastolak, polikiroldegiak, zinema, antzokia, etab. Hala ere, barruan jorratzen diren jardueraz gain, nabarmena da ere kalean jorratzen direnak, hots, festak, merkatuak, paseoak, etab. Bestalde, gehiengoak aipatu du familiarekin pasatzen duela denbora libre gehien, nahiz eta lagunekin ere aisialdia pasatu. Gutxi dira, ordea, denbora libre bakarrak pasatzen dutenak.

Abusu auzoan, komunitatean parte hartzen ez dutenen kopurua zertxobait altuagoa da, parte hartzen dutenen aldean. Hala ere, auzokideen kopuru esanguratsu batek, % 42k, parte hartzen du komunitatean. Komunitatean parte hartzen duten pertsonak, oro har, puntuazio altuagoak erakutsi dituzte inklusioaren inguruan galdetutako baieztapenetan. Bereziki, adierazgarria izan da, «Talde sozial batean parte harbatzen ez dutelako sentsazioa» altuagoa izan da komunitatea hobetzeko parte hartzen ez dutenen kasuan. Eta era berean, komunitatean parte hartzen dutenek uste dute garrantzitsua izango litzatekeela elkarte batean balego pertsona guztiei sartzen uztea. Era berean, «Elkarte batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke elkarte pertsona bakoitzari egokitzea eta ez aldrebes» baieztapenari dagokionez, zertxobait altuagoa izan da komunitate hobetzeko jardueraren batean parte hartzen dutenen pertsonen iritzia. Eta ikuspegi hori izatea ezinbesteko giltza da jendarte inklusiboa bat lortzeko bidean (Ainscow, 2004). Era berean «Elkarte batean egongo banintz, garrantzitsua izango litzateke bakoitzaren kondizioagatik ez baztertea (etnia, sexua, aniztasun funtzionala edukitzea, erlijioa, maila sozioekonomikoa...)» baieztapenean puntuazio altuagoa erakutsi dute komunitatea hobetzeko parte hartu dutenak. Arnaiz-ek (1997) esandakoarekin bat, pertsona baten inklusioa gerta dadin pertsona hori onartzea beharrezkoa da, hau da, haren abileziak, jokabideak, sentimenduak eta jarrerak ere onartzea (Ainscow, 2004). Hori dela-eta, jakin beharra daukagu guztiok izan behar ditugula eskubide eta aukera berdinak gaur egungo bizitza duintasunez bizi ahal izateko.

Aurrera begirako proposamenei dagokionez, jakin beharra dago inklusioa etengabeko prozesua dela eta haren helbururik garrantzitsuena pertsona guztiei aukera berdinak eskaintzea eta horien parte-hartzea ahalbidetzea dela, baita aisialdi-esparruetan ere (Morata *et al.*, 2015). Horretarako, komunitateak guztien beharrei erantzungo dieten baldintzak sortzeko gai izan beharko du; azpiegituretan, zerbitzuetan eta programetan (Madariaga, 2004). Horregatik, sortzen diren jarduera horietan kontziente izan beharko dugu biztanleria guztiarentzat prestaturik egon beharko dutela, nahi duenak parte har dezan.

Hori dela-eta, garrantzitsua izango da aisialdi inklusiboari arreta jartzea gizarte inklusiboago bat lortzerako bidean. Zentzu horretan, ezinbestekoa izango da, inklusioa etengabeko prozesua izanik, bertan garatzen diren praktikak nolakoak diren ikusi eta horiek egokitzea, egiten diren esku-hartze soziokulturaletan ikuspegi inklusiboa bermatuz.

5. Bibliografia

- Ainscow, M. (2004): *Desarrollo de escuelas inclusivas. Ideas, propuestas y experiencias para mejorar las instituciones escolares*, Narcea, Madrid.
- Ander-Egg, E. (1988): *¿Qué es la Animación Socio Cultural?*, Centro de Cultura Popular, Santa Cruz de Tenerife.
- Arnaiz, P. (1997). *Integración, Segregación, Inclusión. 10 años de integración en España*, Murtziako Unibertsitatea, Murtzia.
- Barrado, J.M. (1982): *La Animación Sociocultural, un esfuerzo de aclaración*, Cáritas Española, Madrid, <<http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/725/02-%20%20LA%20ANIMACION%20SOCIOCULTURAL,%20UN%20ESFUERZO%20DE%20ACLARACION.PDF>> (Kontsulta: 2015-9-25).
- Compton, D.; Pegg, S. & Robb, G. (2003): «La disyuntiva de la inclusión: crear una inclusión plena con ayuda de actividades recreativas y de estructuras sociales ostensibles para personas con discapacidad», *Adoz: revista de estudios de ocio*, **26**, 9-20.
- Devine, M.A. & Dattilo, J. (2000): «Social acceptance and leisure lifestyles of people with disabilities», *Therapeutic Recreation Journal*, **34(4)**, 306-322.
- Dumazedier, J. (1968): *Hacia una civilización del ocio*, Estela, Bartzelona.
- Estupinyà, A. (2006): *Experiencia de ocio y tiempo libre en personas afectadas de pàralisis cerebral*, Centro ocupacional Gresol, Bartzelona, < <http://www.eduso.net/res/?b=8&c=69&n=196>> (Kontsulta: 2015-9-25).
- Fantova, F. (2004): *Ocio, inclusión y discapacidad. Un marco para el desarrollo y la mejora de servicios de ocio inclusivo*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, <<http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/ocio/ocio28.pdf>> (Kontsulta: 2016-01-13).
- Macneil, R.D. & Anderson, S.C. (1999): «Leisure and persons with developmental disabilities: Empowering self-determination through inclusion», P. Retish & S. Reiter (ed.), *Adults with disabilities: International perspectives in the community*, Lawrence Erlbaum, Mahwah, NJ, 125-143.
- Madariaga, A. (2004): *Ocio, inclusión y discapacidad. Acortando la distancia entre el ocio integrador y el ocio inclusivo*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Morata, T. eta beste (2015): *Memoria científico-técnica del proyecto de investigación I+D+i. Ocio, acción sociocultural y cohesión social*, argitaratu barik.
- Síndic de Greuges. (2014): *Informe sobre el derecho al ocio educativo y a las salidas y colonias escolares*, Síndic de Greuges, Bartzelona.

